



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

PRESTAKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMA

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo
Profesionala

2020ko uztaila-abendua

2020ko lehen seihilekoan ezin izan ditugu egin Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak programaturiko prestakuntza-jarduera guztiak. COVID-19ak egoera berri bat ekarri digu, eta horretara egokitu behar izan dugu. Aurrez aurre programaturako jarduerak bertan behera utzi behar izan genituenez, batzuk erreskatatzea eta interesgarria iruditzen zaigun beste prestakuntzaren bat gehitzea erabaki dugu.

Gizarte Langintzaren Elkargoak online formatuan bideragarriak diren jarduera programatuak egiten jarraitzea erabaki du, presentzialki eskatzen den segurtasun-distantzia bermatzea zaila delako.

Modu horretan, seihileko honetako prestakuntza-eskaintzan ondorengoak izango ditugu: ikastaroak, prestakuntza-pilulak eta webinar ezberdinak.

1. IKASTAROAK

Gure lanbidean aritzeko gure trebetasunak eta gaitasunak hobetzen laguntzen duten prestakuntza-jarduerak dira.

Seihileko honetarako honako ikastaro hauek planifikatu ditugu:

- ***“Lidergoa” (8 ordu). Online.***
- ***“Proiektuen kudeaketa” (20 ordu: 7,5 ordu online + 12,5 ordu banako lana)***

2. TAILERRAK / PRESTAKUNTZA-PILULAK

Jarduera hauetan, gaia modu labur eta/edo praktikoagoan gauzatzen da. Arratsalde batean egin ditzakegun jarduerak dira, Gizarte Langintzaren alderdi mordoaren barnean aztertu beharreko gai interesgarriei buruzko zertzeladak eman diezazkiguketenak.

Seihileko honetan, 3 tailer eta/edo prestakuntza-pilula antolatu ditugu. Horietako batzuk egin gabe geratu ziren aurreko seihilekoan, eta horiek mantentzea eta beste berri bat gehitzea erabaki dugu.

- ***“Ekintzailtza eta ariketa librea Gizarte Lanean” (1,5 ordu). Online.***
- ***“Trebetasun Sozialak eta Umorea Gizarte Lanean” (1,5 ordu). Online.***
- ***“Esku-hartze sozialean genero-indarkeriak detektatzeko gakoak” (1,5 ordu). Online.***

3. WEBINARRAK - PARTEKATURIKO GUNEAK ONLINE

Gure ustez, beharrezkoa da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Gizarte Langintzaren Elkargoko Batzorde ezberdinek hainbat webinar eskainiko dituzte haien inguruko gaiak lantzeko. Modu horretan, aurkezpen horiei esker, hobeto ezagutuko ditugu gure Batzordeak, haien lana eta unean dituzten kezkak.

- **“Bitartekaritza”**
- **“Gizarte-zerbitzuak”**
- **“Osasun-arloko Gizarte-lana”**
- **“Gizarte-lan Komunitarioa”**
- **“Gizarte-lan Gerontologikoa”**

1. IKASTAROAK



"Lidergo-trebetasunak" ikastaroa (8 ordu). Online. Jesús Mari Elizalde Oroz

Irailak 22 eta 29 (asteartea) eta urriak 6 eta 13 (asteartea), 17:30etik 19:30era.

Gero eta pertsona gehiagok eskatzen digute lidergo ona izateko behar diren trebetasunak lantzea eta trebatzea. Gizarte Laneko profesionalak ohituta daude pertsonekin eta taldean lan egiten, baina prozesuak, taldeak eta gainerakoak zuzentzeko behar diren trebetasunak hobetzea eskatzen dute.

[+info](#)

[Izen-ematea](#)



“Proiektuen kudeaketa” ikastaroa (20 ordu). Online. Myriam Flores Quesada

(7,5 ordu online eta 12,5 ordu banako lana). 2020ko urriak 19 eta 21 (astelehena eta asteazkena), 26 eta 28 (astelehena eta asteazkena) eta azaroak 2 (astelehena), 16:30etik 18:00etara.


Gizarte Langintzako profesionalak elkarte, fundazio eta abarretan egiten dugu lan, eta proiektuak kudeatzea gero eta garrantzitsuagoa da horiek bizirik jarraitzeko. Erakunde askok, lanpostuak barne, jasotzen dituzten eta erakunde horiek kudeatzen dituzten diru-laguntzei esker funtzionatzen dute.

Oso garrantzitsua da proiektuak kudeatzeko prozesu osoan behar diren ezagutzak hartzea.

[**+ Info**](#)

[**Izen-ematea**](#)

2.- PRESTAKUNTZA-PILULAK online



“Ekintzailtza eta ariketa librea Gizarte Lanean”. Online. Loli Rodriguez.

2020ko irailak 17 (osteguna), 17:00etatik 18:30era

Azken urteetan nabarmen gehitu dira lan-jarduera libreki egiten duten Gizarte Langintzako profesionalak, gizarte-premia klasikoei edo emergenteei erantzuna emanez. Testuinguru horretan, irudi hori definitzen duten ezaugarri nagusiak ez ezik, herritarrei eskain diezaieketen aukera zabala ere ezagutzera eman behar dira.

[+ Info](#)

[Izen-ematea](#)



“Trebetasun sozialak eta umorea esku-hartze sozialean”. Ana Eguiazabal Gamón.

2020ko azaroak 12, osteguna (17:00-18:30). Online.

Gizarte Langintzaren barnean, "arazoa" esku-hartzean gidatzen gaituen premisa izaten da batzuetan. Tarte honetan, beste ikuspegi positiboa aztertu nahi dugu, umorea esku-hartzeetan erabili beharreko tresna moduan (besteak beste) erreskatatzearekin batera.

[**+ Info**](#)

[**lzen-ematea**](#)



“Esku-hartze sozialean genero-indarkeriak detektatzeko gakoak” (1,5 ordu). Online. Ruth Iturbide Rodrigo.

2020ko azaroak 23, astelehena (18:00-19:30)

Azaroaren 25a **Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna** denez, Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak gai hori joratu nahi du prestakuntza honen bitartez, “genero-indarkeriaren fenomeno konplexuari buruzko gogoeta egiteko, detektatzean eta egon daitezkeen adierazleetan oinarrituta, aplikazio praktikoan hobetzearen”.

[+info](#)

[Izen-ematea](#)

3. PARTEKATURIKO ESPAZIOAK online / WEBINARRAK

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala, halaber, plataforma interesgarria da gai edo lan-eremu espezifikoei buruzko lantalde eta batzordeetan parte hartu ahal izateko. Jada dakizuen moduan, NGLEOren barruan hainbat talde ditugu Gizarte Lanaren barnean arlo ezberdinen garapen eta hazkundera etengabe eta sistematikoki lanean ari direnak.

Lantalde / batzorde horiek oso garrantzitsuak dira NGLEOren egituraren barnean; izan ere, horiek lantzen dituzte gaiak modu espezifikoa eta arlo horietan gure aditu-taldetzat hartzen ditugu.

Era horretan, seihileko hau aprobetxatu nahi dugu talde / batzorde horiek nahiz orain garrantzitsutzat jotzen dituzten eta/edo lantzen ari diren gaiak ezagutzera emateko.

Lantalde / Batzorde bakoitzak partekaturiko espazio bat / webinar bat eskainiko du online bigarren seihileko honetan. Egunak eta gaiak oraindik zehazteko daude. Antolatutakoan horien berri emango dizuegu. Adi egon!!!!

“Bitartekaritza”



“Gizarte-zerbitzuak“



“Osasun-arloko Gizarte-lana“



“Gizarte-lan Komunitarioa”



“Gizarte-lan Gerontologikoa”

